

**SAILBURUA**
LA CONSEJERA

AGINDUA, 2018KO MAIATZAREN 25EKOA, LAN ETA JUSTIZIAKO SAILBURUARENA, ZEINAREN BIDEZ BERMATZEN BAITA 2018KO MAIATZAREN 30ERAKO DEITUTAKO GREBA OROKORRAK DIRAUCEN BITARTEAN GIZARTEARI EMAN BEHAR ZAIZKION EZINBESTEKO ZERBITZUAK BETEKO DIRELA.

LAB sindikatuak greba orokorra deitu du 2018ko maiatzaren 30erako. Bi orduko lanuzteak deitu dira egun horretarako, deialdia egin dutenen hitzetan "sektore guztiek izan dezaten grebarekin bat egiteko aukera, kontuan hartuta ordutegiak eta txandak askotarikoak direla. Deialdiak, beraz, 10:00etatik 16:00ak arteko aldia hartuko du, eta, zehazki, 12:00ak eta 14:00ak artean aplikatuko da. Sindikatu honek ordezkaritza duen lantokietan, eta, halakorik ezean, sindikatuen ordezkaritzarik ez dagoenean, langileek hala erabakita, deitutako lanuztea zein ordutegitan egingo den erabaki ahalko da, bai eta zein iraupen izango duen ere (gehienez ere bi ordu txanda bakoitzean), kasuan kasuko inguruabarrak, ordutegia, txandak eta gainerakoak kontuan hartuta. Hartzen den erabakia, edonola ere, lantokiko arduradunari jakinaraziko zaio. Hiru txanda edo gehiago (hau da, gaueko txandak barne) dituzten lantokietan, deialdia goizeko 04:00etatik goizeko 06:00etara bitartean aplikatuko da". Deialdia egin dutenek adierazitakoaren arabera, "deialdi horrek barnean hartzen ditu Euskal Autonomia Erkidegoaren eremu geografikoaren barruko enpresa eta erakunde guztietako langile eta enplegatu publikoek betetzen dituzten lan- eta funtzionario-jarduera guztiak, alde batera utzita zer enpresa edo administrazioen mende dauden. Lanuzteak enpresa eta zerbitzu publikoei ere eragingo die".

Hauek dira greba orokorraren helburuak, deialdia egin dutenen arabera:

- 1) Langile euskaldunen indarra batzea, Lan Harremanen Euskal Esparruaren alde, eta administrazio publikoei eta gizarte-agente nahiz enpresa guztiei eskatzea esparru hori garatzeko ausardia erakutsi eta urratsak eman ditzatela.
- 2) Deialdiak ukitzen duen lurralde-eremuko langileek pairatzen duten lan-ezegonkortasuna salatzea eta hura antzemateko mekanismoak aktibatzea.
- 3) Administrazio publikoei eta enpresei eskatzea negoziazio kolektiboko debaluazio-politikak utz ditzatela, erkidego-mailan nahiz probintzietan, horrek eskubide ekonomikoak eta lan-arlokoak galtzea eragiten baitu.
- 4) Agente egokiei dei egitea, sektore guztietan lan-baldintza duinak negoziatzen.
- 5) Ugazabek arlo publikoan nahiz pribatuan negoziatzeko borondate urria dutela salatzea, deialdi honek ukitzen dituen lurraldeetan."



Grebaren esparrua kontuan izanik, Euskal Autonomia Erkidegoari dagokionez, bertako gobernu-agintaritzari dagokio Euskal Administrazio Publikoak eta gainerako erakunde, entitate edo enpresek ematen dituzten ezinbesteko zerbitzuak ematen direla ziurtatzeko bermeak ezartzea zerbitzu publikoetan edo behar-beharrezkoak eta atzeraezinak direnetan, Lan Harremanei buruzko martxoaren 4ko 17/1977 Legegintzako Errege Dekretuaren 10. artikuluko bigarren paragrafoan xedatutakoari jarraikiz.

Espainiako Konstituzioaren 28.2 artikulua langileen greba-eskubidea onartzen du, langileek beren interesak defenda ditzaten, horixe baita egungo zuzenbide-estatu sozial eta demokratikoak oinarri dituen oinarritzko eskubideetako bat. Konstituzioak, beraz, berdin babesten ditu greba-eskubidea eta beste zenbait eskubide garrantzitsu, hala nola: bizia, osotasun fisikoa, osasuna, hezkuntza, joan-etorri askea, informazio-askatasuna eta benetako babes judiziala, besteak beste. Hain zuzen, Konstituzioak bete-betean babesten ditu, bai eskubide horiek guztiak, baita greba egiteko eskubidea ere.

Beraz, greba egiteko eskubidea herritarren gainerako oinarritzko eskubideen kontrakoa izan daitekeenez, eta Konstituzioaren 28. eta 37. artikuluetan xedatuta dagoenaren arabera, gizartearentzako ezinbesteko zerbitzuak mantentzen direla ziurtatzeko neurri egokiak hartu behar dira, auzitan dauden eskubideetako bat bera ere gauzatu gabe gera ez dadin.

Hala ere, aurreko premisa gorabehera, begien bistakoa da ezen, oinarritzko eskubideak mugatzen dituen edozein neurri konstituzionala izan dadin, proportzionaltasunaren printzipioa zorroztasunez aplikatuz hartu behar dela, eta horretarako hiru baldintza bete behar ditu neurri horrek: neurria aplikatuz proposatutako helburua lortu ahal izatea, hots, «egokitasun-judizioa» deritzona; egitatea aztertuta, ondorioztatu izana ez dagoela neurri apalagoren bat helburu hori eraginkortasun berarekin lortzeko, hau da, «beharrizanezko judizioa» deritzona; eta, azkenik, neurria edo konponbidea orekatua edo neurtua izatea, haren aplikazioaren ondorioz guztion intereserako onura edo abantaila gehiago eragiten direlako auzian dauden beste ondasun edo balioetarako eragiten diren kalteak baino, hau da, «proportzionaltasun-judizioa, zentzu hertsian». Gai horri buruz hainbat aldiz erabaki du Konstituzio Auzitegiak, honako epai hauen bitartez, besteak beste: 122/1990, 123/1990, 8/1992 eta 126/2003.

Erabaki horietatik ondorioztatu behar dugu gizartearentzako ezinbesteko zerbitzuak emango direla ziurtatzeak mugatu egiten duela grebarako eskubidea baliatzeko aukera, eta, ondorioz, nahitaezkoa dela interes desberdinak kontuan hartuta egoki orekatuz jokatzeko. Hori dela-eta, ziurtatzeak berme gisa balio behar du, eskubide kontrajarrien ezinbesteko koordinaziotik abiatuta; betiere ulertuta grebalarien eskubidea mugatu beharko dela —amore eman, Konstituzio Auzitegiaren hitzetan—, haien eskubideak grebaren bidez babesteak ezinbesteko zerbitzua jasotzeko eskubidearen komunitate/pertsona titularrari eragiten dion edo eragin liezaiokeen kaltea larriagoa bada grebalarien errebindikazio edo eskakizunen arrakastarik ez izateak eragingo lukeena baino. Horregatik, greba-deialdi honen aurrean, haren garapenak dituen ezaugarri zehatzak hartu beharko dira kontuan; eta, zehazki, grebaren denbora-eremua. Bi orduko lanuzte partzialak egingo dira, eta grebaren jarduera-esparruak barnean hartuko ditu Euskal Autonomia Erkidegoan ezarritako enpresa eta erakunde guztietako lan- eta funtzionario-jarduera guztiak.

Adierazitakoa dela-eta, Konstituzioaren 15. eta 43.1, 19., 20., 27., 35. eta 24. artikuluetan, bizia, osotasun fisikoa eta morala, osasuna, hezkuntza, lurraldeko joan-etorri askea, lana, informazioa eta benetako babes judizialerako eskubidea babesten dira. Hain zuzen ere, botere publikoei dagokie eskubide horiek bermatzea, prebentzio-neurriak ezarri eta beharrezko zerbitzuak



emango direla ziurtatuz. Greba egiteko eskubidea zilegi bada ere, eskubide horiek guztiak ezin daitezke babesik gabe geratu. Horren ondorioz, Euskal Autonomia Erkidegoko Gobernuak gutxieneko zerbitzuak ezarri behar ditu, erkidegoan ezinbesteko zerbitzuak bermatzeko, ondoren adierazten diren eta agindu honetan zehaztuta geratzen diren sektoreetan.

Osasun-sektorea

Osasuna babestea oinarritzko eskubideetako bat da zuzenbide-estatu guztietan. Egun, herritarrek gutxieneko prestazio sanitarioak eskatzeko duten eskubide gisa ulertzen da eskubide hori, aintzat hartuz giza duintasuna eta estatu bakoitzaren gizartearen eta ekonomiaren garapen-maila. Hala, Giza Eskubideen Adierazpenak (NBE, 1948) 25.1 artikuluan dioenez, «pertsona orok du osasuna eta ongi izatea edukitzeko eskubidea, eta batez ere, mediku sorospena eta gizarte-zerbitzuak»; ildo berekoak dira Europako Kontseiluaren Europako Gutun Sozialaren 11. artikulua (Turin, 1961) eta Ekonomia-, Gizarte- eta Kultura-eskubideen Nazioarteko Itunaren 12. artikulua (NBE, 1966).

Hortaz, greba-eskubidearen eta Konstituzioaren 15. eta 43.1 artikuluetan jasotako beste zenbait eskubideren arteko gatazkan (bizitzeko eskubidea, osotasun fisiko eta moralerako eskubidea eta osasuna babestekoa), ezinbesteko baldintza da azken horiek bermatu beharra. Osasun-zerbitzu publiko nahiz pribatuak pertsonen osasuna eta bizia zaindu behar dute. Horren ondorioz, eta greba-deialdiari dagokionez, ez da argudiorik behar edo argudio gutxi behar da larrialdiko zerbitzuak bete-betean mantentzea behar-beharrezkoa dela adierazteko; izan ere, zerbitzu horietan berehala esku hartu ezean, gerta daiteke norbaiten bizia arrisku larrian egotea. Orobat, "ospitaleratutako pazienteak behar bezala artatu ahal izateko", ospitaleratutako paziente bakoitzari behar bezala eman behar zaizkio botikak, higiene-egoera egokia bermatu behar zaio, eta jaten eman behar zaio, otorduak errespetatuz; esan nahi baita, beharrezko asistentzia eman behar zaio, bere osotasun fisiko eta morala honda ez dadin.

Osasun-arloko lehen mailako arretari dagokionez, arazorik gabe hartzen da oinarritzko zerbitzutzat, ospitalez kanpoko larrialdiei estaldura ematen dien heinean batez ere. Jarduera-sektore honetan gutxieneko zerbitzuak ezartzeari dagokionez, esan behar da, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien salak emandako epai batzuen ondotik (2012ko urriaren 3koa, deuseztatzen jo zituen 2012ko martxoaren 29an 24 orduko greba orokorra egiteko 2012ko martxoaren 23ko Aginduaren bidez ezarri ziren lehen mailako arretarako gutxieneko zerbitzuak; eta 2013ko martxoaren 5koa, deuseztatzen jo zituen 2012ko azaroaren 14an eta 2013ko maiatzaren 30ean 24 orduko greba orokorrak egiteko 2012ko irailaren 19ko Aginduaren bidez ezarri ziren lehen mailako arretarako gutxieneko zerbitzuak; eta 2016ko ekainaren 14ko greba-deialdia, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko langileentzat egina, txanda guztietarako bi orduko ordu-tarteetan —ez dago jasota haien aurka egin zenik, ez administrazio-bidetik, ez auzibidetik—, gobernu-agintariek erabaki zuten larunbatetako lanaldiari dagokiona —eta larunbatetako ohiko ordutegia— ezarriko zutela lehen mailako arretarako gutxieneko zerbitzu gisa, greba-egunerako aurreikusita zegoen langile-kopuruarekin; horrenbestez, eutsi egin zaie zerbitzu horiei.

Larrialdi-zerbitzuei eta etengabeko arretaguneei dagokienez, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien salaren 2012ko urriaren 3ko Epaiak ezetsi zuen errekurtsogileak larrialdi-zerbitzuetarako eta etengabeko arretaguneetarako ezarritako gutxieneko zerbitzuen inguruan zuen asmoa, hau da, zerbitzu horiek gehiegizkotzat jotzea (% 100eko zerbitzuak ezarri ziren), arrazoi hau aipatuta: «larrialdi-zerbitzuen izaerak berak eta



etengabeko arretaguneen helburuak justifikatu egiten dute, aztergai dugun eremuan (osasunaren eremuan) eta osotasun fisikoa eta bizitzeko eskubidea ahaztu gabe, errekurtsua jaso duen aginduan bildutako gutxieneko zerbitzuak ezartzea»; horrenbestez, eutsi egin zaie zerbitzu horiei.

Osasun-sektore horretan bertan, kontuan hartu behar da 2011ko uztailan funtsezko erreforma bat egin zela erabiltzaileen arretan: call center izeneko sistema. Sistema horrek, osasun-arreta bere horretan ematen ez badu ere, zerbitzu hori benetan ematea ahalbidetzen du, erabiltzaileak arreta horrekin duen lehen harremana baita; zerbitzu hori bereziki nabarmena da osasun-aholkuari dagokionez. Izan ere, telefono-zerbitzua da, eta lehen mailako arretako erizaintzako langileek ematen dute. Bertan, erabiltzaileen premiak balioesten dituzte eta, haien egoeraren arabera, dagokion zerbitzura bideratu. Zehazki, larrialdi-zerbitzura (bizilekura anbulantzia bat bidalita) edo etengabeko arretagunera (bizilekurako abisua zuzenean kudeatuta) bidera daitezke. Garbi dago, beraz, Call Center izeneko osasun-larrialdietara bidera daitezkeen deien iragazkia dela, osasun-aholkuan gerta litekeen kolapsoa saihesten duela, eta osasun-lehentasuna duten deiak eta dei arruntak bereizten dituela. Horrez gain, beste zerbitzu batzuk egiten ditu, hala nola aurrez ordua eskatzeko deiak hartzea, IVR telefono-sistema bidez operadore birtual gisa jardutea, zenbaki generikoetatik aurrez ordua eskatzeko iristen diren deiak hartzea, zerbitzuei buruzko informazio orokorra ematea, etab. Azkenik, Autonomia Erkidegoko zentro guztietako O-Sarean barruko zerbitzu eta aplikazioen funtzionamenduari lotutako barne-gorabehera teknikoak kudeatzen ditu. Sistemaren funtzionamendu teknikoaren berme horrek eta osasun-aholkuak bultzatu dute gobernu-agintaritza hau zerbitzu hori bermatu beharreko ezinbesteko zerbitzutzat hartzera, bizitzeko eta osasunerako eskubideari lotuta dagoen heinean.

2014. urtean, Call Center Korporatibo zentralizatua bi sistemarekin ordeztu da:

a) Osasun-erakunde batzuetan, telefono-jauziko dei-sistema bat ezarri da anbulatorioen artean, eta ez da beharrezkoa izango gutxieneko zerbitzu espezifikorik finkatzea sistema horretan.

b) Eta Arabako Eskualdeko erakunde sanitarioetan, Donostialdea ESIan, Ezkerraldea-Enkarterri-Gurutzetako ESIan, Bilbo-Basurtu ESIan, Uribe ESIan, Debarrena ESIan, Tolosaldea ESIan eta Bidasoa ESIan, lehengo call center Korporatiboaren funtzio berak betetzen dituen baina erakunde horietako bakoitzera mugatuta dagoen call center sistema bat ezarri da.

Bigarren call center mota honetan gutxieneko zerbitzuak ezartzeko beharra honako hauek arrazoitzen dute: batetik, lehengo call center korporatiboaren funtzio berak betetzen ditu, erakunde sanitario bakoitzera mugatuta bada ere; eta, bestetik, telefono bidezko arreta oso garrantzitsua da; izan ere, arreta hori funtsezkoa da osasun-antolamenduan, herritarrek osasun-sistemarekin harremanetan jartzeko gehien erabiltzen dituzten bideetako bat baita. Sistema horren bidez, gainera, telefonoz ordua aurrez eskatzeko eskariaren banaketa orekatuagoa lortzen da eguneko orduetan. Horri esker, zerbitzuek ez dute gainezka egiten lehen orduetan, eta telefonoz bideratzen ez diren pertsonak ez dute nahitaez osasun-zentrora joan behar.

Ezarri beharreko gutxieneko zerbitzu zehatzei dagokienez, kontuan hartu behar da aurreko Call Center Korporatiboan urteko egun guztietan egiten zela lan, nahiz eta astelehenetik ostiralera bitarte jarduteko plantilla bat eta larunbaterako beste bat egon. Egungo Call Center zerbitzua antolatuta dagoen moduan, berriz, ez da zerbitzurik ematen larunbatetan. Beraz, gutxieneko zerbitzuak larunbatetako zerbitzuetara mugatzea zerbitzurik ez ezartzea izango litzateke, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien salak 2013ko maiatzaren 29ko Autoan erabaki eta 2013ko irailaren 25eko Epaiak berretsi zuenez. Hori guztia

dela-eta, Osakidetza Zuzendaritzak emandako informazioaren arabera, egungo plantillaren % 50 behar da zerbitzu hori betetzeko, eta, hortaz, lan horiek egin ohi dituzten langileen ehuneko hori ezartzen da gutxieneko zerbitzu gisa.

Zirkunstantzia horietan guztietan oinarrituta, deialdi honen aurre-aurreko greba-deialdietan – aipatutako zerbitzuari eragiten ziotenetan–, 2014ko azaroaren 4ko Agindua, 2015eko apirilaren 21eko Agindua eta 2016ko ekainaren 10eko Agindua eman ziren eta, haien bidez, ehuneko hori ezarri zen gutxieneko zerbitzu gisa.

Bestalde, garraio sanitarioko enpresek egiten dituzten zerbitzuei dagokienez, zerbitzu horiek erabat gelditzen badira, osasun-arreta behar duten herritar asko ezin izango lirateke lekualdatu, eta horrek lehendik aipatu dugun osasunerako edo bizitzeko eskubideari erasotzen dio; izan ere, gaixorik dauden pertsonen lekualdaketa behar bezain azkar ez bada jarduten, pertsona horien heriotza ere gerta daiteke, beharrezko osasun-arreta ez jasotzeagatik. Arrazoi horiek guztiak kontuan hartuta, gizartearentzako ezinbestekotzat jo behar da sektore horrek ematen duen zerbitzua, eta, hortaz, behar-beharrezkotzat eta atzeratu ezintzat, argi eta garbi.

Larrialdien eta segurtasunaren sektorea

Gizarteak larrialdiei aurre egiteko eta bide-segurtasuneko zerbitzuetarako duen eskubidea (SOS Deiak, larrialdiei aurre egiteko eta meteorologia zerbitzuak, suhiltzaileak, larrialdietako igorleak eta komunikazioak, errepideen mantentzea –neguko bide-plana barne–, urtegi, ibai eta mendietako larrialdi-zerbitzua, Babes Zibila, Euskadiko Trafikoa Kudeatzeko Zentroa eta abar) eta Segurtasun Sailaren eta Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren komunikazio- eta informatika-arloa jendearentzako ezinbestekotzat hartzen dira, larrialdia ezbehar bihur ez dadin egiten baitira zerbitzu horiek. Konstituzioaren 15. eta 43.1 artikuluetan, bizia, osotasun fisikoa eta morala eta osasuna babesten dira. Hain zuzen ere, botere publikoei dagokie eskubide horiek bermatzea, prebentzio-neurriak ezarri eta beharrezko zerbitzuak emango direla ziurtatuz. Greba egiteko eskubidea zilegi bada ere, eskubide horiek guztiak ezin daitezke babesik gabe geratu. Beraz, gizartearentzako ezinbestekotzat jo behar da sektore hori, eta, hortaz, zerbitzu hori behar-beharrezko langileekin ematea ezinbestekotzat eta atzeratu ezintzat jo behar da. Horretarako, jaiegun batean bezainbeste langile arituko dira lanean.

SOS Deiak zerbitzuak aipamen berezia merezi du. Kasu honetan, ezinbesteko zerbitzu hori emateko gutxieneko zerbitzu egokiak ezartzeko, kontuan hartu behar da zerbitzu horietako telefono-arretaren ohiko tamaina pentsatuta dagoela normaltasun-egoeran eguneko dei-kopuruari erantzuteko. Beraz, zerbitzua emateko gutxieneko edo oinarritzko pertsona-kopurua hartzen da kontuan, larrialdi-egoerak ezin direlako ez aurreikusi ez planifikatu. SOS-Deiak Larrialdiak Koordinatzeko Zentroek urtean 1.400.000 dei erantzuten dituzte, eta 171.000 gorabehera baino gehiago koordinatzeko lanetan parte hartzen dute.

Hori guztia dela-eta, zerbitzua mantentzeko eskatu beharreko gutxieneko zerbitzuak ohiko egun baterako planifikatutako kopurura iritsi behar dira. Izan ere, kopuru txikiagoa ezartzen bada, gerta daiteke herritar baten deia ez jasotzea lineak edo operadoreak gainezka daudelako, eta, ondorioz, gerta daiteke giza biziak (pertsona batena, zenbaitena edo askorena) salbatzeko baliabideak atzeratzea edo ez mugiaraztea. Ezinezkoa da zain dauden deiak zerrendatzea, eta alertarik ez galtzea lortu behar da; izan ere, alertaren bat galtzen bada, larrialdi-zerbitzuek ez dute izango esku hartzeko behar duten informaziorik. Horrez gain, baliteke beharrezkoa izatea, zerbitzuaren ohiko kopurua egoteaz gain, unean-uneko laguntza ere eskatzea, larrialdi-plan bat

aktibatu delako edota greba-egunean larrialdi-kasu larriak gertatu direlako. Beraz, beharrezkoa eta ezinbestekoa da greba-egunean ohiko egun baterako aurreikusitako langileen % 100 estaltzea, bai operadoreen lanpostuetan bai gainbegiraleenetan; izan ere, gainbegiraleek, koordinazio-lana egiteaz gain, telefono bidezko arreta ere ematen dute, eta lan-txandatik hurrengo erreleboratzen transferentzia egiteko arduradunak dira, lehenago ere azaldu den bezala. Baliteke zerbitzuaren tamaina horri laguntzaren bat gehitu behar izatea, gerora sortutako larrialdi-egoera larrietan. Euskal Autonomia Erkidegoko contact center sektorean eta Larrialdiak Koordinatzeko Zentroan egin diren azken greba-deialdietan, 2017ko martxoaren 3ko Agindua eta 2017ko martxoaren 15eko Agindua eman ziren, hurrenez hurren, eta ohiko egun baterako aurreikusitako langileen % 100 ezarri zen gutxienezko zerbitzu gisa.

Gizarte-zerbitzuen sektorea eta esku-hartze soziala

Gizarte-zerbitzuak, bestalde, babes-neurrien multzo gisa daude eratuta, mendekotasuna duten edo kalteberatasun-egoeran dauden pertsonen bizitzeko gutxienezko baldintza duinak eta kalitatezkoak bermatzeko. Konstituzioaren 15. eta 43.1 artikuluetan, bizia, osotasun fisikoa eta morala eta osasuna babesten dira. Hain zuzen ere, botere publikoei dagokie eskubide horiek bermatzea, prebentzio-neurriak ezarri eta beharrezko zerbitzuak emango direla ziurtatuz. Greba egiteko eskubidea zilegi bada ere, eskubide horiek guztiak ezin daitezke babesik gabe geratu. 10.1 artikulua xedatzen duenez, gizabanakoaren duintasuna ordena politikoaren eta gizarte-bakearen oinarri da. Halaber, Konstituzioaren 49. artikulua xedatzen duenez, botere publikoek «aurreneurri-, tratamendu-, bizkortze- eta gizarteratze-politika egingo dute urritu fisiko eta psikikoentzat eta zentzumen-urrituentzat; horiei, eurek behar duten arreta berezia emango zaie, eta bereziki babestuko dira, titulu honek herritar guztiei ematen dizkien eskubideak egikaritu ahal izateko».

Gizarte Zerbitzuei buruzko Legeak (abenduaren 5eko 12/2008 Legeak) antolatzen ditu zerbitzu hauek Euskal Autonomia Erkidegoan. Lege horren 2. artikulua, zehazki, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako zerbitzu eta prestazioak eskubide subjektibo gisa azaltzen ditu. Halaber, Legearen 22. artikuluan alpatu sistemako prestazio eta zerbitzuen katalogoa ezartzen da, eta haren ezaugarriak, modalitateak, helburuak, baldintzak eta sarbideak, nahiz onuradunen profila, urriaren 6ko 185/2015 Dekretuan (Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorrotari buruzkoa) garatu dira. Dekretu hori kontuan hartu da zerbitzu hauen nahitaezko izaera zehaztu eta kuantifikatzeko orduan.

Aurreko araudian sartzen diren zerbitzu guztiek gizartean ez dute, noski, eragin berdina, eta ez dira zuzentzen ahulezia-maila berbera duten pertsonen (ahulezia izan daiteke gizartean, adinagatik edo gaixotasunagatik). Horrenbestez, ostatu-zerbitzuetan (tutoretzapeko etxebizitzak eta apartamentuak eta erkidego-etxebizitzak), autonomiaren arloko mugen ondoriozko beharrezko erantzuteko egoitza-zentroetan eta eguneko zentroetan (mendetasun-egoeran dauden pertsonen, ezintasunen bat duten pertsonen edo gaixotasun mental kronikoren bat duten pertsonen zuzenduta), etxeko laguntza-zerbitzuetan edo telelaguntza-zerbitzuetan lan egiten duten pertsonen jardura nahitaezkoa dela ulertu behar da. Izan ere, zerbitzu horien hartzailak ezin dira bakarrik moldatu, duten egoera subjektibo eta pertsonala dela-eta. Beraz, sektore horretan gutxienezko zerbitzuak finkatu ezean (nahiz eta greba bi ordukoa izan), baliteke kalte larriak eragitea, eta, hartara, grebaren helburuak lausotuta geratzea; izan ere, pertsona batzuen osasuna eta segurtasuna arrisku biziaren egongo bailitzateke egoera horietan.

Kontuan hartu behar da, gainera, zerbitzu horiek kudeaketa publikokoak izan daitezkeela, zuzenean nahiz zeharka, baina baita kudeaketa pribatukoak ere, eta, beraz, zentro edo zerbitzu guztiak izan behar direla gogoan, beren titulartasuna edozein izanda ere.

Hala eta guztiz ere, kontuan hartu behar da zerbitzu horietako funtzio guztiak ez direla nahitaezkoak. Nahitaezko funtziotzat «zuzeneko arretako zerbitzuak» hartu behar dira; zerbitzu horien xedea da arreta jasotzen dutenen oinarritzko zainketa pertsonalak emango direla bermatzea. Zuzeneko arretako zerbitzuen barruan, arreta sanitario eta geriatrikoekin nahiz gizarte-arretarekin batera daude otorduen prestaketa eta otordu-zerbitzua, hidratazioak, botika-hornidurak, siesta terapeutikoak eta, mendekotasun-egoeraren arabera, higiene pertsonala eta altxatzeko, garbitzeko, janzteko edo jateko laguntza.

Horrez gain, kontuan hartu behar da zerbitzu horien ohiko funtzionamenduak intentsitate-maila desberdinak dituela egunean zehar, pertsonen jarduera funtzionalaren eta ziklo biologikoen arabera, eta jarduera handiagoa dagoela goizeko lehenengo orduan (jaiki, higiene pertsonala, jantzi, medikazioa, gosaria eta abar), eguerdiko otorduan eta eguneko azken orduetan (afaria, oheratu, pixoihala aldatu, medikazioa eta abar); beraz, ordu horietan arreta pertsonalizatu handiagoa behar da arreta zuzeneko zaintzaileen aldetik (gerokultorea, zaintzailea, gizartean esku hartzeko zereginez arduratzen den langilea, edo parekatuak). Horren ondorioz, ordu horietan beharrezkoa da langile horietako gehiago egotea, eguneko gainerako orduetarako ezarritako oinarritzko langileei laguntzeko; izan ere, gainerako ordu horietan, bezeroen beharrezkoei erantzuteko jarduera txikiagoa izaten da.

Pertsona nagusiekin lotutako zerbitzuetan, ostatu-zerbitzuetan, tutoretzapeko apartamentuetan (Gizarte Zerbitzuen Zorroari buruzko Dekretua, 1.9.1), eta erkidego-etxebizitzetan (1.9.4), nahiz Zorroari buruzko Dekretutik kanpoko egoitza-zentroetan eta kudeaketa publiko nahiz pribatuko egoitza-zentroetan (2.4.1), grebaren iraupenaren ondorioz, arreta zuzeneko gerokultoreak edo parekatuak % 50 izango dira, jatorduen ohiko ordutegian eta goizeko 10:00-10:30 bitartean izan ezik; azken tarte horietan langileak % 10 gehiago izango dira.

Soil-soilik erabiltzaileen % 70ek baino gehiagok II. eta III. graduako mendekotasun aitortua duten zentroetan, gerokultoreen eta parekatuen ehunekoa % 70ekoa izango da.

Gaueko txandan, zuzeneko arretako langileen % 100ek lan egin beharko du, baina «zuzeneko arreta» moduan zehaztutako lanak baino ez dituzte egingo.

Arreta zuzeneko nahitaezko izaeraren irizpide hori bera aplikatu behar da mendetasun-egoeran dauden adineko pertsonen eguneko zentroetan edo zerbitzuetan (2:2.1) eta ezintasun intelektual, fisiko edo sentoriala duten eta garapenerako nahasmenduak dituzten edo gaixotasun kroniko mentala duten pertsonen kasuan (2.2.1 barruan 2, 3 eta 4 motak). Hala, zuzeneko arretako zerbitzuak mantenduko dira zuzeneko arreta hori ematen duten langileen (gerokultoreen, zaintzaileen edo parekatuen) % 50arekin, baina gosaltzeko eta bazkaltzeko ohiko orduan ehuneko hori % 10 handituko da.

Zentro horiek mintzagai, Madrilgo Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salaren ekainaren 28ko 558/2011 epaiari jarraikiz, lan-egunean greba dela-eta ixtea ez da bateragarria, nahitaezko zerbitzuak direla kontuan hartuta. Izan ere, aurreko paragrafoan aipatzen diren pertsonak nahitaez behar dute beraiek zaintzen dituzten helduen arreta, eta, beraz, beren askatasuna eta autonomia mugatuta geratuko litzateke beharrezkoak diren beste jarduera batzuk egiteko: funtsean, lan egiteko, lan-eguna denean.

Zentro horiei dagokienez, ezinbesteko zerbitzutat hartu behar da, gainera, mendekotasun-egoeran dauden erabiltzaileen garraioa, horien desplazamenduak (aurreko paragrafoan aipatutako ezinbesteko zerbitzuak jaso ahal izateko) ezin badira egin haien mugikortasun-gaitasunera egokitutako bestelako garraiobideen bitartez. Bestela, pertsona horiek ezin izango lituzkete jaso prebentziorako, mantentzerako eta «eguneroko bizitzarako oinarritzko jarduerak» izenekoak hobetzeko beharrezkoak diren arreta eta zerbitzu asistentzialak, terapeutikoak eta sanitarioak (Autonomia Pertsonala Sustatzeari eta Mendetasun Egoeran dauden Pertsonak Zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legearen 24. artikuluan bermatzen diren moduan).

Izan ere, erabiltzaileen desgaitasunengatik zerbitzua gidari batek eta begirale edo laguntzaile batek ematea behar-beharrezkoa den neurrian, ezin da % 100etik beherako ehunekorik eman. Bestalde, kasu horietan ezin da, ezta ere, egin beharreko garraioaren murrizketa portzentualik ezarri, zerbitzua eman arren zerbitzu hori txikiagoa izateko moduan, langileek egin beharreko lanaldia ohi baino gehiago luzatzea ekarriko bailuke horrek. Beraz, egoera honetan, garraio bereziaren bidez ematen den ezinbesteko zerbitzua bermatzeko, litekeena da langile horietako batzuei, zerbitzua eman dezaketen bakarrak direnez, dagokien greba-eskubidea guztiz murriztea, erabiltzaileen mugikortasunerako gaitasunei behar bezala egokituta dauden beste garraiobide batzuk ez baldin badaude behintzat.

Etzeko Laguntza Zerbitzua gizarte-zerbitzu bat da (1.2), Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 22.1.2. artikuluan jasotzen dena, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren katalogoan sartuta dauden zerbitzuen eta prestazio ekonomikoen artean. Barne hartzen ditu laguntza pertsonaleko, orientazioko eta egunerokotasuneko oinarritzko jarduerak zuzenean egiteko arreta-zerbitzuak, hala nola ohetik jaikitzea eta oheratzea, janzteia, etxea garbitzea, arropa garbitu eta lisatzea, ontziteria garbitzea, eguneroko higiene pertsonala, elikadura, medikazioa kontrolatzea, mugitzea eta joan-etorriak egitea, familiaren antolaketan laguntzea, elikagaiak erostea, janaria prestatzea. Horiez gain, beste jarduera osagarri eta beharrezko batzuk ere egiten dira, zerbitzuaren xedeak lortzeko beharrezkoak direnak, bai eta etxetik eguneko zentroetara edo osasun-zentroetara joaten lagundu ere. Zerbitzu horien onuradun dira, maila ezberdinetan, bakarrak dauden edadetuak edo mendekotasun-egoeran daudenak, eta, beraz, babes berezia jaso behar dute, Konstituzioaren 15. eta 43.1 artikuluetan jasotako bizirako, osotasun fisiko eta moralerako eta osasunerako eskubideak bermatze aldera. Hain zuzen ere, botere publikoei dagokie eskubide horiek bermatzea, prebentzio-neurriak ezarri eta beharrezko zerbitzuak emango direla ziurtatuz. Greba egiteko eskubidea zilegi bada ere, eskubide horiek guztiak ezin daitezke babesik gabe geratu.

Halaber, greba-deialdia dela eta, telelaguntzako zerbitzu publikoari dagokionez, Gobernuak neurri egokiak hartu behar ditu, telelaguntza ematerakoan ezinbesteko zerbitzuari eusten zaiola ziurtatzeko, hala ezarrita baitago, batetik, Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legearen 15. artikuluan –telelaguntza-zerbitzua jasota dago lege horretan– eta, bestetik, Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legean; izan ere, azken lege horren 22. artikuluan, prestazio- eta gizarte-zerbitzuen katalogoa ezartzen da, eta, zerbitzu horien artean, lehen mailako gizarte-zerbitzuetan, telelaguntza-zerbitzua jasota dago; lege horren 40.3 artikuluan, Eusko Jaurlaritzari esleitzen zaio dagozkion prestazio eta zerbitzuak ematea. Greba honetarako gutxieneko zerbitzu gisa, agindu honetako ebazpen-zatian finkatutako langile eta egitekoak ezartzen dira.



Gizarte-larrialdian edo -premieran dauden edo gizartean baztertuta egoteko arriskuan dauden pertsonen arreta espezifikoa emateko orduan, jai-egun bateko zerbitzua eman beharko da, honako kasu hauetan:

- a) Ostatu-zerbitzuak/tutoretzapeko etxebizitza bazterkeria-arriskuan daudenentzat (1.9.2)
- b) Babesgabetasun-egoeran dauden adingabeentzako egoitza-zentroak (2.4.4)
- c) Bazterkeria- eta marjinazio-egoeran dauden pertsonentzako egoitza-zentroak (2.2.5)
- d) Etxean tratatu txarren biktima izan diren emakumeentzako egoitza-zentroak eta emakumeentzako beste egoitza-zerbitzu batzuk (2.4.6)
- e) Gizarte-larrialdietarako koordinazio-zerbitzua (2.6)
- f) Gaueko harrera-zerbitzuak (1.8)
- g) Gizarteratze-premier erantzuteko gaueko harrera-zerbitzuak (2.3.2)

Bestalde, baztertuak izateko arriskuan dauden pertsonentzako eguneko zentroetan (2.2.3) eta gizarte-jantokietan janari-zerbitzua bermatuko da. Nolanahi ere, egiteko errazak diren edo aurrez prestatuta dauden janariak izateko ahalegina egingo da, eta ordutegiak egokitu egingo dira.

Hezkuntza-sektorea

Hezkuntzaren arloari dagokionez, premisa gisa hartu behar da hezkuntzarako eskubidea Konstituzioaren 27. artikuluan onartutako oinarritzko eskubidea dela, zentzu zabalean hartuta, unibertsitate-hezkuntza barne, Auzitegi Konstituzionalak 26/1987, FJ 4º., a) epaian adierazi zuen bezala: «hezkuntzarako oinarritzko eskubidearen tratamendua, unibertsitate-arloan, ez da geratzen ezinbesteko zerbitzuen zehaztapenetik kanpo ikastetxe horietan lan egiten duten langileak greba-eskubideaz baliatzen diren kasuan. Horren ondorioz, ezin da baieztatu ezinbesteko zerbitzu horiek zehazteak Espainiako Konstituzioaren 28. artikulua (Grebarako eskubideari buruzkoa) urratzen duenik».

Bermatu beharreko ezinbesteko zerbitzuak zeintzuk diren zehazteko, eta, beraz, hezkuntza-eremuan gutxieneko zerbitzuak ezartzeko, kontuan hartu behar da greba-deialdiak hezkuntza-zentro guztietan eta hezkuntza-arloko funtzioak eta eskumenak garatzen dituzten langile guztiengan – funtzionarioak nahiz lan-kontratadunak – duela eragina.

Eginiko greba-deialdiaren eremua kontuan izanik, hezkuntza-zerbitzuaren esparruaren barruan, sektore publikoko enplegatu publiko eta lan-kontratadun langile ez publiko guztiak barne hartzen ditu horrek, hezkuntza-egitekoak eta -eskumenak garatzen baldin badituzte, baita besteren konturako langileak eta autonomoak ere, hezkuntzari lotutako egitekoak eta lanak egiten baldin badituzte. Zehazkiago, eragin-esparrua hau izango litzateke: Unibertsitateaz kanpoko hezkuntza arautua, ikastetxe publikoak zein itunpekoak eta pribatuak; Haurreskolak Partzuergoa eta udal-titulartasuneko haurtzaindegiak; unibertsitateak, Musikene, Goi Mailako Musika Ikastegia eta udal-titulartasuneko musika-eskolak eta Hizkuntza Eskola Ofizialak.

Bi orduko lanuztea dela kontuan izanda ere, nahitaezkoa eta beharrezkoa da zentroak irekitzea greba egiten ez duten langileek lanerako eskubidea —Konstituzioaren 35. artikuluan onartua— gauzatu ahal izan dezaten. Horregatik, gobernu-agintaritzak gutxieneko zerbitzutzat jotzen du ikastetxeetarako eta lotutako eraikinetarako sarrera-kontrola bermatzea, gutxienez

grebarako eskubidea ez baliatzea erabakitzen duten langileen sarrera bermatze aldera, baita ikasleen sarrera ere, hain zuzen ere zentroak irekiko ez balira, lanerako eta hezkuntzarako eskubide korrelatiboa guztiz eta bidegabeki eragotziko litzatekeelako.

Unibertsitateaz kanpoko ikastetxeak irekitzeko beharrizan bakarra ez da «ikastetxea irekitzea» jarduera material gisa; aitzitik, irakaskuntza-egitekoaren edo -jardueraren ezinbesteko «funtzionamendu-errutinak» gauzatu behar dira (gutxieneko zerbitzuen izaera murriztaileagatik eskatzen direnak), ikastetxe horietan instalazioak edo materialak zaintzeko eta ikasleak zaintzeko egiten direnen artean; izan ere, ikastetxe haietara ikasle adingabeak joaten direnez –adingabeei ezin zaie helduei eskatzen zaien heldutasun-malla bera eskatu haien jardunean, eta horren ondorioz, ikastetxearen erantzukizuna ezin da guztiz baztertu (Auzitegi Gorenaren 2002ko apirilaren 14ko Epaia)–, berebiziko arreta eskatzen da ekiditeko modukoak diren arriskuak ezabatzeko edo murrizteko, instalazioak behar bezala edukiz eta mantenduz, baita zaintzeko eta kontrolatzeko lanak eginez ere–irakaskuntza- edo prestakuntza-jarduerak garatzen diren egoitza batean adingabeak edo ezinduak zaintzeko ardurak hartzen badira [...] arreta berezia jarri behar da halek nozitu lezaketen edozein lesio edo kalte saihesteko. Valentziako Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren urriaren 23ko Epaia, 1526/2009 zenbakikoa (Administrazioarekiko Auziak, 1. atala)–. Horren ondorioz, ikastetxe horietan, gutxieneko zerbitzu gehigarri gisa, aginte- eta/edo zuzendaritza-ahalmena duten pertsonak egotea ezarri beharko da, prebentzio eta segurtasunerako arreta ikastetxe horietara joaten diren adingabeentzat ikuspuntu objektibo batetik arriskutsuak izan litezkeen guneetara zuzentzeko ardura beren gain har dezaten.

Azkenik, eta bereziki unibertsitate-irakaskuntzari dagokionez, bide jurisdikzionaletan nabarmendu denez, azpimarratu behar da deialdian jasotako greba-eguna ikasleen ebaluazioak, probak eta azterketak egiteko garaian izan daitekeela, zeinak ikasketa-egutegietan jakinarazi baitzaizkie. Kasu hauetan, gutxieneko zerbitzuak finkatzeko premia ez da zehaztuko jarduera akademikoen, irakaskuntzakoen eta ikerketakoen edukien arabera, ezta garatu beharko diren moduen arabera ere, baizik eta hezkuntzarako eskubidea kaltetuta gera ez dadin eten edo gelditu ezin den jarduera horien zatiaren arabera; zati horren barruan biltzen dira, esate baterako, ikasturtearen azken ebaluazioko probak, jurisprudentziak adierazi duenaren arabera, besteak beste Auzitegi Gorenaren 2001eko urriaren 16ko epaian.

Haurreskolak Partzuergoa osatzen duten zentroak eta udal-hautzaindegia zabaldu beharrari dagokionez, grebarekin bat egiten ez duten langileen lanerako eskubidea babesteaz gain, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren 2009ko urriaren 28ko Epaian adierazitakoari jarraikiz, ezinbesteko zerbitzua da, bai Konstituzioaren 27. artikulua aitortzen duen hezkuntzarako oinarritzko eskubidearen ikuspegitik, bai lan-bizitza eta familia-bizitza uztartzeko zailtasunaren ikuspegitik; gainera, lan egiteko eskubidearekin lotuta dago, gizarte-harremanen bilakaera-izaera dela-eta.

Garraio-sektorea

Askatasunez zirkulatzeko eskubidea (Konstituzioaren 19. artikulua) oinarria da oinarritzko beste zenbait eskubide baliatzeko, hala nola: bizia, osotasun fisikoa eta osasuna babesteko beharrezkoa den laguntza jasotzeko eskubidea edo hezkuntza-jarduerak edo lana bera garatzeko zentroetara joatekoa. Izan ere, halako eskubideak ezin dira babesik gabe utzi, greba eskubidea baliatzea zilegi bada ere. Arrazoi horrengatik, aintzat hartu behar da bidaiarien garraioa gizartearentzat ezinbesteko zerbitzua dela, zerbitzu horiek guztiz gelditzeak leku batetik bestera mugitzeko erabateko ezintasuna eragingo lukeelako herritar askorentzat, eta horrek adierazitako

zirkulazio-askatasunerako eskubidea urratuko luke.

Horrez gain, kontuan hartu behar da bidaiarien garraio-linea batzuk bakarrak direla eta bestelako garraio-aukerarik ez dutela, hala nola Lurreko Garraioaren Antolamenduari buruzko uztailaren 30eko 16/1987 Legearen 72. artikuluan xedaturikoaren arabera ezarritakoak. Halaber, kontuan hartu behar da linea horien erabiltzailearen profila honako hau dela: ibilgailu partikularrik ez duen pertsona, adineko pertsona edo desgaitasuna duena, edo zonalde isolatuetan bizi dena eta bestelako garraibideetara iristeko baliabide gutxi dituen.

Bestalde, herri-administrazioek bidaiak egiteko garraio publikoaren erabilera sustatu dute herritarren artean, horretarako sektorea baliabide berriekin hornituz (metroa, tranbia, eta abar) eta jada ezarritako baliabideen (trena eta autobusa, nagusiki) lineak eta zerbitzuak sustatuz, horrela garapen egokiagoa eta jasangarriagoa lortzeko, eta hiriarteko trafikoaren kolapsoa saihesteko, batez ere eguneko trafikoaren kasuan, aukera bakarra garraibide pribatuaren erabilera izan ez zedin. Jarduera horri esker, zerbitzu publiko horiek erabiltzeko eskaria nabarmen handitu da.

Zirkunstantzia horrek, beste faktore batzuekin batera, ezarri beharreko gutxieneko zerbitzuak % 30ean finkatzea dakar. Hona hemen faktore horietako batzuk: hiru Lurralde Historikoetako hiriburuen eta udalerri mugakideen (horiek guztiak biztanle askorekin) arteko komunikazioa bermatzea, udalerri mugakideen arteko lotura, modu eksklusiboan eta lanerako, hezkuntzarako, osasunerako eta abarrerako elkarrekiko mendekotasun sozioekonomiko handiarekin, eta bidaiarien garraio-zerbitzu edo garraio-linea batzuk herritarren bidaietarako ezinbestekoak edo bakarrak izatea –bestelako aukerarik ez izateagatik, edo kudeatzen dituen beste garraibide batzuekiko aukera izateagatik–. Era berean, ezinbestekotzat jo behar dira garraibideen koordinazioko eta kontroleko zerbitzuak, horien segurtasun-arloko zereginak, instalazioenak nahiz bertan dauden pertsonenak eta larrialdi-egoeretan jarduteak greba-egoera batean bermatu behar diren oinarritzko eskubideekin lotura dutelako. Zerbitzu horiek gutxieneko langile kopuru batekin eman beharko dira.

Horretaz aparte, greba hasi orduko zenbait zerbitzu hasita egongo dira, eta horrek –gutxieneko zerbitzurik jarri ezean– zerbitzu horiek finkatutako orduan berehala geldiaraztea ekarriko luke, eta bukatu gabe utziko lieke beren ibilbidea une horretan zerbitzuok erabiltzen ari direnei. Halaber, lanuztea bukatzen denean, hau da, zerbitzua berrabiarazterakoan, aipatutako geldiarazte horrek zailago bihurtuko luke garraibideen erritmoak eta maiztasunak berreskuratzea eta horrek, era berean, grebaren eraginak deituta dagoen denbora-mugatik harago luzatzea ekar lezake.

Era berean, bide-zirkulazioa bermatu behar da ordainpeko autobide eta tuneletan, eta horretarako, ordainleketako igarobidea bermatu behar da, bide automatikoen nahiz eskuzko bideen elementu erregulatzailerik gisa, langileen gutxieneko presentziarekin, joan-etorrien ondorioz sor daitezkeen arrisku-egoeren intentsitatearen arabera modulatzeko, eta zuzenean segurtasunari lotuta daudenez egon daitezkeen gorabeherak kontrolatu eta mantentzeko, laguntzeko eta seinaleztatzeko; hori dela medio, horiek guztiak ezinbestekotzat hartu behar dira.

Bestalde, ibilgailuentzako erregaia hornitzea gaur egun ezinbestekoa da pertsonen eta salgaien zirkulazio askea ahalbidetzeko, baita gizartean beharrezkoak diren zerbitzuak eskaintzeko ere, hala nola: anbulantziak, suhiltzaileak, babes zibila eta Larrialdikotzat jotzen diren zerbitzu



guztiekin lotutakoak, izan ere, pertsonen bizia, osasuna eta osotasun fisikoa nahiz morala bermatzen eta zaintzen baitute.

Energiaren eta telekomunikazioen sektorea

Halaber, energia elektrikoa eta gasa produzitu eta banatzen eta ura arazten eta banatzen duten enpresak eta erakundeak ezinbestekotzat jo behar dira, oinarritzko eta/edo premia larriko ondasunak eta zerbitzuak sortzen dituzten azpiegiturei eta produkzio-prozesuei ekarpen erabakigarria egiten dietelako. Bada, enpresa horietako langileek greba eginez gero, baliteke pertsonen osasunari ezin konponduzko kalteak eragitea; hortaz, hain beharrezkoak ditugun ondasun horien hornikuntzak bermatuta egon beharko du grebaldian.

Euskal Autonomia Erkidegoan diharduten telekomunikazio-enpresei dagokienez, ematen duten zerbitzuaren zati baten ezinbestekotasuna Telekomunikazioei buruzko azaroaren 3ko 32/2003 Lege Orokorrean ezarrita dago, zerbitzu horrek komunikazio pertsonal, profesional eta komertzialetan duen eraginean oinarrituta. Era berean, Internetarako sarbide funtzionala bermatu behar da, Europar Batasunaren Zerbitzu Unibertsalari buruzko Zuzentarauan ezarritakoari jarraikiz (2002ko otsailaren 22an onartutako zuzentzari hori Telekomunikazioei buruzko Lege Orokorreko 22. artikulua bitartez txertatu zen gure ordenamendu juridikoan).

Euskal Irrati Telebista / Radio Televisión Vasca (EITB)

Erakunde publiko honek eskaintzen duen zerbitzuak, ente publiko hori sortzeari buruzko maiatzaren 20ko 5/1982 legearen arabera, ezinbesteko zerbitzu publikoaren izaera du. Aztergai dugun kasuan, eta EITBk edozein hedabideren bitartez egiazko informazioa komunikatu eta emititzeko funtsezko eskubideen erabilera azpimarratzen duenez, Konstituzioaren 20.1.d) artikuluan ezarrita dagoenaren arabera, eduki instituzionala, politikoa edo soziala duten albistegiak ez badira emititzen, herritarren eskubide eta askatasunen erabilera mugatuko litzateke.

Administrazio publikoak

Herritarren eta administrazioaren arteko harremanei dagokienez, kontuan izan behar da horietako asko araututa daudela. Arau horietan ezarritako epeak oso garrantzizkoak dira herritarrek euren interesak defenda ditzaten, baita benetako babes judizialerako eskubidea ere. Hain zuzen ere, idazki, dokumentu nahiz espediente jakin bat administrazioan dagokion epearen barruan sartu dela egiaztatzen dute administrazioaren erregistroek, zeren, bestela, gerta baitaiteke herritarren eskubide batzuk urratzea. Horrela, bada, autonomia-erkidegoan egun batean zehar ordu-tarte zehatz batzuetarako edo egun oso baterako greba orokorraren deialdia egiteak ez du esan nahi egun hori edo ordu horiek baliogabeak direnik. Hortaz, administrazio publikoak gutxienez dokumentuak erregistratzeko zerbitzua irekita eduki beharko du, herritarren oinarritzko eskubideak bete ahal izateko.

Ilido beretik, kontuan izan behar da EJIE Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkarteak bere informatika-zerbitzuak ematen dizkiela Eusko Jaurlaritzari eta erakunde guztiei, eta zerbitzu horietako batzuk ezinbestekoak direla. Horrela, bada, Ustiapen Zerbitzua ezinbestekotzat jotzen da haren jarduerak Jaurlaritzaren informazio-sistemak erabilgarri daudela bermatzen duelako, urteko 365 egunetan eta eguneko 24 orduetan, eta erabiltzaileei aukera ematen dielako edozein lekutatik edozein sistema informatikotara sartzeko. Horrez gain, azpiegituren eta aplikatiboen etengabeko monitorizazio-lanak egiten ditu. Gutxienezko zerbitzuak ezarri ezean, zerbitzu orokorra galdu liteke,



eta horren ondorioz ezinezkoa izan liteke bai informatika-tresnak bai datu-biltegiratzea erabiltzea, baita PLATEA plataforma ere, zeinaren bidez bideratzen baitira gobernuak Interneten duen presentzia, izapidetze elektronikoa, dokumentuen kudeaketa eta gobernuaren eta kanpo-erakundeen arteko integrazio-prozesuak. Halaber, gorabeheraren bat izanez gero, informatika-sistema batek bermatzen du gobernuaren eraikinetarako sarbidea, bai funtzionarioena bai herritarrena; eta gai horri buruz azpimarratu behar da sistemak huts eginez gero, erregistrarako ezarritako gutxieneko zerbitzuak eraginik gabe gera litezkeela, aurreko paragrafoan azaldu den bezala. Azkenik, ezinbestekoa da, jakina, babeskopia egitea, egunean zehar landutako informazioa geroago inolako galerarik gabe berreskuratu ahal izateko.

Jurisdikzio-organoen jarduerak, konstituzioaren lehen mailakoak izaki, bermatu beharrekoak diren oinarritzko eskubide garrantzitsu jakin batzuei eragiten die. Horren ondorioz, jarduera hori ezinbestekotzat jo behar da greba-kasuetan, eta ez bakarrik oinarritzko zenbait eskubideri – askatasun-eskubideari adibidez – eragiten dielako bereziki, baita ere jurisdikziora biltzea eta benetako babes judiziala lortzea ere kolokan jar dezakeelako, EAEko Justizia Auzitegi Nagusiaren 2006ko urriaren 25eko 771. zenbakiko epaiak ezarri duen bezala.

2006ko urriaren 25eko epai horrek greba izanez gero ezarri beharreko gutxieneko zerbitzuak –langile-hornidurarekin zerikusia dutenak barnean direla– zehazteko irizpideak finkatzen ditu. Besteak beste, honako hauek dira: epaitegietan eta Auzitegi Medikuntzako Euskal Institutuan guardia-eginkizunetan diharduten langileen % 100 hornitzea; dokumentuak jaso eta erregistratzea; premiazkotzat jotako jardunak edo Legeak aldeztu aurretik ezarritako epemuga egun horretan dutenak, baldin eta ez-betetze horrek eskubideak galdu edo kaltetzea ekar badezake berekin; kautelazko, behin-behineko eta betearazpeneko neurriei eragiten dietenak, baldin eta, ondorengo egunetarako utziz gero, eraginkortasuna gal badezakete edo norbait espetxetik ateratzeko eguna atzera badezakete; eta greba-egunerako ezarritako epaiketa, agerraldi eta antzekoak, baldin eta, etenez gero, kalte larriak eragin baditzaizkete, ondorenean egiteko zailtasunak direla-eta, edota etenaldi horrek eragin litzakeen neurrigabeko kalteak direla-eta.

Era berean, familia-elkarguneetan (2.7.3.2), eta soilik epai bidez ezarritako bisitetan, bi hezitzaile egongo dira.

Gutxieneko zerbitzuak ezartzerakoan, kontuan hartu behar dira, halaber, barneratze-neurriak betearazten diharduten gazte justiziako zentroak; halakoetan, jaiegun bateko langileek jardun behar dute.

Arlo horretan, bereziki aipagarria da Zumarragako Ibaiondo zentroa. Hezkuntza-zentro hori, izan ere, jurisdikzio-bidean hartutako erabaki baten bidez eskubideak murriztuta dituzten adingabeei zuzenduta dago, eta, horregatik, tratamenduak banakakoa izan behar du. Dituen ezaugarri bereziengatik, gobernu-agintaritzak neurri egokiak hartu behar ditu, eskaintzen duen ezinbesteko hezkuntza- eta egoitza-zerbitzu publikoa mantentzen dela ziurtatzeko, bai eta instalazioen, langileen eta adingabeen euren segurtasuna ere. Era berean, egoiliarren bizitzeko eskubidea eta osasuna, hezkuntza, segurtasuna eta osotasuna izateko eskubidea ziurtatu behar dira.

Hori guztia ikusita, agindu honetan zehazten diren gutxieneko zerbitzuak ezartzen ditu gobernu-agintaritzak, auzitan dauden eskubideen funtsezko edukia bateragarri egiten saiatzeko.

Zerbitzu jakin batzuk ezinbestekoak dira, oinarritzko eskubide batzuk betetzen dituztelako, eta zerbitzu horiek bermatu ahal izateko, greba-eskubideari muga batzuk jarri behar zaizkio. Eta arlo horretan eskumen eskusiboa gobernu-agintaritzak edukitzeak zera bermatzen du, muga horiek



zuzenbidearen arabera ezarriko direla, eta, ezarri ere, gobernatzeko erantzukizuna eta ahalmena duenak baino ez dituela ezarriko.

Hori dela-eta, Lan-harremanei buruzko martxoaren 4ko 17/1977 Errege Lege Dekretuaren 10.2 artikulua aipatzen duen prozedura bideratu da.

Deitutakoaren antzeko iraupena duten greba orokorren kasuetan, Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuaren aginduak eman dira, hala nola 2009ko maiatzaren 18koa (2009ko maiatzaren 19ko EHAA, 93. zk.), 2010eko ekainaren 24koa (2010eko ekainaren 26ko EHAA, 121. zk.), 2010eko irailaren 24koa (2010eko irailaren 27ko EHAA, 186. zk.), 2011ko urtarrilaren 21koa (2011ko urtarrilaren 25eko EHAA, 16. zk.), 2012ko martxoaren 23koa (2012ko martxoaren 24ko EHAA, 61. zk.), 2012ko irailaren 19koa (2012ko irailaren 24ko EHAA, 186. zk.), 2012ko azaroaren 8koa (2012ko azaroaren 12ko EHAA, 218. zk.), 2013ko maiatzaren 30koa (2013ko maiatzaren 27ko EHAA) y eta 2018ko otsailaren 27koa (2018ko martxoaren 6ko EHAA, 46. Zk.). Agindu horiek ez dira aurrekari lotesleak, baina, aplikatzerakoan izandako gorabeherak eta akatsak kontuan hartuta, aurrekari garrantzitsuak dira.

Lan eta Justizia Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 11ko 84/2017 Dekretuaren 3.1 artikulua Lan eta Justiziako sailburuari ematen dizkio azaroaren 26ko 24/2016 Dekretuan jasotako eskumenak (24/2016 Dekretua, azaroaren 26koa, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioako sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen). Dekretu horren 16. artikuluan, Lan eta Justizia Saila sortzen da, eta, beste egiteko eta jardun-arlo batzuen artean, lan-arloko legeriak lan-harremanei buruz ezartzen duena egikaritzeko egitekoa esleitzen zaio, eta, ekainaren 11ko 139/1996 Dekretuaren bidez eskuordetzen zaio zerbitzu publikoak edo premia biziko eta atzerazineko zerbitzuak eskaintzeko ardura duten enpresa, entitate eta erakundeetan greba-eskubidea baliatzen dutenean autonomia-erkidegoko ezinbesteko zerbitzuei jardunean eutsiko zaiela ziurtatzeko beharrezko diren neurriak ezartzeko eskumena.

Horregatik guztiagatik, Lan eta Justiziako sailburuak, Eusko Jaurlaritzaren ordezkari gisa, honako hau

EBAZTEN DU:

Lehenen. LAB sindikatuak Euskal Autonomia Erkidegoan 2018ko maiatzaren 30erako deitu duen grebak goizeko 10:00ak eta 16:00ak arteko aldia hartzen du, eta, zehazki, 12:00ak eta 14:00ak artean aplikatuko da. Sindikatu honek ordezkari gisa duen lantokietan, eta, halakorik ezean, sindikatuen ordezkari gisa ez dagoenean, langileek hala erabakita, deitutako lanuztea zein ordutegitan egingo den erabaki ahalko da, bai eta zein iraupen izango duen ere (gehienez ere bi ordu txanda bakoitzean), kasuan kasuko inguruabarrak, ordutegia, txandak eta gainerakoak kontuan hartuta. Hartzen den erabakia, nolahi ere, lantokiko arduradunari jakinaraziko zaio. Hiru txanda edo gehiago (hau da, gaueko txandak barne) dituzten lantokietan, deialdia goizeko 04:00etatik goizeko 06:00etara bitartean aplikatuko da. Deialdi horrek barnean hartzen ditu Euskal Autonomia Erkidegoaren eremu geografikoaren barruko enpresa eta erakunde guztietako langile eta enplegatu publikoak betetzen dituzten lan- eta funtzionario-jarduera guztiak, alde batera utzita zer enpresa edo administrazioen mende dauden. Lanuzteak enpresa eta zerbitzu publikoei ere eragingo die.

Greba-eskubidea baliatzean, nahitaezko prestazioak eta hurrengo ataletan zehazten diren gutxienezko zerbitzuak eman egin beharko dira.

**Bigarrena.- Osasun-sektorea**

- a) Osasun-zerbitzu publikoak nahiz pribatuak ematen dituzten enpresek eta erakundeek honako zerbitzu hauek bermatu beharko dituzte:
- Ospitaleetan, jaiegunetako ohiko langileekin (alta medikoak eman ahal izango dira), larrialdiak, sukaldea, janari-banaketa, zerbitzu horien funtzionamendurako behar-beharrezkoa den garbiketa, eta ospitaleratutako gaixoak behar bezala zaintzea. Halaber, aurrez zehaztu diren eta geroraezinak diren tratamendu onkologikoak eta dialisi-prozesuak mantenduko dira.
 - Lehen mailako arretaren eremuan, greba-egunerako aurreikusita zeuden langileak, lanaldi bati dagozkion zerbitzuak eta larunbatetako ohiko ordutegia.
 - Larrialdi-zerbitzuen eta etengabeko arretako guneen % 100.
 - Arabako Eskualdeko Call Center zerbitzuetan, Donostialdea ESlan, Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzeta ESlan, Bilbo-Basurtu ESlan, Uribe ESlan, Tolosaldea ESlan, Debarrena ESlan eta Bidasoa ESlan, zerbitzu horiek eman ohi dituzten langileen % 50.
- b) Garraio sanitarioaren sektoreko enpresek honako hauek beteko dituzte:
- Larrialdi-zerbitzuak. Larritzat edo urgentetzat hartuko da koordinazio-zentro batek eskatzen duen edo mediku-ziurtagiri batek halakotzat jotzen duen garraio sanitarioa.
 - Hemodialisi- eta onkologia-tratamenduetarako eta eguneko ospitalerako programatutako garraioa, bai eta ospitale arteko larrialdiko garraioa eta Basurtuko ospitalean gertatzen diren larrialdi-garraioak ere, baldin eta: a) mediku-ziurtagiriaren bitartez egiaztatzen bada, b) ospitalean zerbitzu hori egiteko berezko langilerik ez badago, eta c) ohatila erabili behar bada. Era berean, ohatila erabiltzea eskatzen duten ospitaleko altek eragindako eta mediku-ziurtagiarekin egiaztatzen den garraioa.
 - Odolaren eta hemoderibatuen garraioa.
 - Telefonia-zerbitzua, zerbitzu hori normalki egiten duten langileen % 25ek egin beharko du.

Hirugarrena.- Administrazio publikoetako bide-segurtasuneko zerbitzuek eta larrialdiei aurre egiteko zerbitzuek honako hauek mantenduko dituzte:

- a) SOS-Deiak 1-1-2 zerbitzuen % 100, txanda bakoitzean zerbitzu horretan egon ohi diren langileek emanda.
- b) Gainerako zerbitzuak (larrialdiei aurre egiteko eta meteorologiako zerbitzuak, suhiltzaileak, larrialdietako igorleak eta komunikazioak, errepideen mantentzea –neguko bide-plana barne– eta urtegi, ibai eta mendietako larrialdi-zerbitzua, Babes Zibila, Euskadiko Trafikoa Kudeatzeko Zentroa eta abar) eta Segurtasun Sailaren eta Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren komunikazio- eta informatika-arloa, jaiegun batean izan ohi dituzten langileekin egingo dira.

Laugarrena – Gizarte Zerbitzuak eta Gizarteko Esku-hartzea.

- a) Pertsona nagusientzako ostatu-zerbitzuetan, tutoretzapeko apartamentuetan, erkidego-etxebizitzetan eta egoitza-zentroetan, zuzeneko arreta ematen duten gerokultoreen edo parekatuen % 50 izango da lanean, bazkariaren ohiko ordutegian eta 10:00-10:30 artean izan ezik, tarte horretan % 10 gehituko baita aipatu ehunekoa. Soil-soilik erabiltzaileen % 70ek baino gehiagok II. eta III. graduako mendekotasun aitortua duten zentroetan, gerokultoreen eta parekatuen ehunekoa % 70ekoa izango da.

Gaueko txandan, zuzeneko arretako langileen % 100ek lan egin beharko du, baina «zuzeneko arreta» moduan zehaztutako lanak baino ez dituzte egingo.

Osasuneko langileak: OLT/EUDen % 50ek lan egingo du.

Sukaldeko langileak: langileen % 50ek lan egingo du. Greban, sukaldeko langileek elikagaiak prestatu beharko dituzte, baina ez dute egin beharko bestelako lanik.

Garbiketako langileak: langileen % 20k lan egingo du. Pertsonen osasunerako edo segurtasunerako berehalako arrisku larria izan dezaketean arloetan baino ez dira egingo garbiketa-lanak.

Atezaintzako eta harrerako langileak: egoitzetako sarbide nagusiko atea zaintzeko eta kontrolatzeko bakarrik emango da zerbitzu hori. Pertsona bakarra egongo da, zerbitzu hori emateko ohiko ordutegian.

- b) Menpeko pertsona nagusientzako eguneko zentroetan eta ezintasun intelektuala, fisikoa edo sentoriala nahiz garapenerako nahasmendua duten pertsonen eguneko zentroetan, zuzeneko arretako zerbitzuak mantenduko dira zuzeneko arreta hori ematen duten langileen % 50arekin, gosaria eta bazkaria emateko ohiko ordutegian izan ezik; azken kasu horietan, ehuneko hori % 10 handituko da. Era berean, gutxieneko zerbitzu gisa ezartzen da osasuneko langileen eta sukaldeko langileen % 50. Baldin eta % 50 hori pertsona bat baino gutxiago bada, pertsona horrek zerbitzu horiek egin beharko ditu. Era berean, eguneko zentroetara joaten diren pertsona mendekoen garraio berezia bermatuko da, zentro horietara joateko desplazamenduak (aurreko paragrafoan aipatutako nahitaezko zerbitzuak jaso ahal izateko) ezin badira bestelako garraiobideen bitartez egin, eta/edo horiek ez badaude haien mugikortasun-gaitasunera behar beste egokitu.

- c) Telelaguntza-sektorean, zerbitzu hau mantenduko da:

- i. TLO Teleoperadoreak. 6 langile goizeko txandan, eta beste 6 arratsaldekoan, honako egiteko hauek burutuko dituztenak:

- Sartzen diren deiak jasotzea, eta larrialdiekin edo premia sozialekin lotuta dauden dei guztiak igortzea.
- Ordutegi horien barruan ezinbestekotzat jotzen diren agendak igortzea (gogorarazte-oharrak).
- Telemonitorizazio-erabiltzaileen deiak kudeatzea, arrisku-pazientetzat hartzen direlako, eta osasun-aholkura bideratzea.
- Unitate mugikorrek mobilizatzea, deia eroriko baten ondoriozko larrialdia bada.

- ii. Gelako gainbegiralea: langile 1 goizeko txandan, eta beste 1 arratsaldekoan, honako egiteko



hauek burutuko dituztenak:

- Larrialdiei aurre egiteko eta alarmak jasotzeko zerbitzua mantentzea.
- iii. Larrialdi medikoetako teknikariak - unitate mugikorrek teknikariak: 3 langile goizeko txandan, eta beste 3 arratsaldekoan:
 - Lesiorik gabeko erorikoei arreta ematea Bizkaian.
- iv. Gainbegirale teknikoak: langile 1 goizeko txandan, honako eginkizunak bakarrik izango dituenak:
 - Larrialdiei aurre egiteko eta alarmak jasotzeko zerbitzuak mantentzea.
- d) Etxeko laguntzaren sektorean, II. eta III. mendekotasun-gradua duten pertsonentzat bakarrik honako zerbitzu hauek egingo dira:
 - i. Janari-zerbitzua emango da. Ahal dela, aurretik egindako edo aurretik egiten diren elikagaletara joko da.
 - ii. Zerbitzu hauek egingo dira: eguneroko higiene pertsonalean lagunduko da, bai eta komuna erabiltzen ere, eta, hala badagokio, maskuri- eta heste-hustuketa egingo da; jaikitzen, oheratzen eta janitzen lagunduko da, eta sendagaiak eta elikagaiak hartzen direla gainbegiratu da.
 - iii. Hitzordua aurretik ezarri bada eta atzeratu ezin badaiteke, osasun-zentroetara joaten lagunduko zaie erabiltzaileei.
 - iv. Halaber, eguneko zentroetara joaten lagunduko zaie.
 - v. Ohean dauden pertsonen dagokienez, behar diren jarrera-aldaketak egingo zaizkie.
- e) Gizarte-larrialdian edo -premieran dauden edo gizartean baztertuta egoteko arriskua duten pertsonen arreta espezifikoan, jai-egun bateko zerbitzua eman beharko da, honako kasu hauetan: a) Ostatu-zerbitzuak/tutoretzapeko etxebizitza bazterkeria-arriskuan daudenentzat (1.9.2.) b) Babesgabetasun-egoeran dauden adingabeentzako egoitza-zentroak (2.4.4.) c) Bazterkeria- edo marjinazio-egoeran dauden pertsonentzako egoitza-zentroak (2.2.5.) d) Etxean tratatu txarren biktima izan diren emakumeentzako egoitza-zentroak eta emakumeentzako beste egoitza-zerbitzu batzuk (2.4.6) e) Gizarte-larrialdietarako koordinazio-zerbitzua. (2.6). f) Gaueko harrera-zerbitzua. (1.8) g) Gizarteratze-premier erantzuteko gaueko harrera-zerbitzuak. (2.3.2).

Bestalde, baztertuak izateko arriskuan dauden pertsonentzako eguneko zentroetan (2.2.3) eta gizarte-jantokietan janari-zerbitzua bermatuko da. Nolanahi ere, egiteko errazak diren edo aurrez prestatuta dauden janariak izateko ahalegina egingo da, eta ordutegiak egokitu egingo dira.

Bosgarrena.- Hezkuntza-sektorea.

- a. Irakaskuntza-zentroetan, ondoren adieraziko diren zerbitzuak emango dira, honako langile hauekin:
 - i. Unibertsitateaz kanpoko hezkuntza arautua, publikoa, itunpekoa eta pribatua: Zentroetarako sarrera-kontrola bermatzeko, zentro publiko eta lotutako eraikin bakoitzeko: zuzendaritza-taldeko pertsona 1 eta mendekoen plantillako pertsona 1 goizeko txandarako eta beste bat



arratsalderako.

ii. Haurreskolak Partzuergoa eta udal titulartasuneko haurtzaindegiak: Zentroetarako sarrera-kontrola bermatzeko, zentro eta lotutako eraikin bakoitzeko; koordinatzaile 1 edota horren ordezkoa.

iii. Euskal Herriko Unibertsitatea:

- Zentroetarako eta horiei lotutako eraikin bakoitzerako sarrera-kontrola bermatzeko: Zentro bakoitzeko eta/edo lotutako eraikin bakoitzeko, atezainen plantillako pertsona 1 goizeko txandarako eta beste bat arratsalderako.
- Egutegi akademikoan planifikatutako azterketak –azken ebaluazioaren maila dutenak– egiteko: azterketa egiteaz arduratuko den irakasle 1.

iv. Musikene Goi Mailako Musika Ikastegia eta udal-titulartasuneko musika-eskolak: Zentroetarako eta haiei lotutako eraikin bakoitzerako sarrera-kontrola bermatzeko, atezainen plantillako pertsona 1 lotutako eraikin bakoitzeko eta goizeko eta arratsaldeko txanda bakoitzerako.

v. Hizkuntza Eskola Ofizialak:

- Zentroetarako eta horiei lotutako eraikin bakoitzerako sarrera-kontrola bermatzeko: Zentro bakoitzeko eta/edo lotutako eraikin bakoitzeko, atezainen plantillako pertsona 1 goizeko txandarako eta beste bat arratsalderako.
- Egutegi akademikoan planifikatutako azterketak –azken ebaluazioaren maila dutenak– egiteko: azterketa egiteaz arduratuko den irakasle 1.

Seigarrena.- Garraioa.

- a) Autobusek, trenak, tranbiak, funikularrek eta ibaiko garraioek greba-deialdian zehaztutako ordutarteetan programatuta dituzten ohiko zerbitzuen % 30 mantenduko dute. Ehuneko hori banatzerakoan, lehentasuna emango zaie ordezko garraio-zerbitzurik ez duten edo osasun-zentroetara daramaten lineei. Halaber, estaldura berezia emango zaie lantokietako sarrera- eta irteera-ordutegiei. Greba hasi aurreko orduetan hasten diren zerbitzuek, horrelakorik egonez gero, ohiko ibilbidea amaitu arte jarraitu beharko dute. Era berean, aginteko, koordinazioko, kontroleko eta segurtasuneko zerbitzuak mantendu behar dira garraiobideetan, zerbitzu horietako lanpostu bakoitzeko eta txanda bakoitzeko pertsona batekin.
- b) Ordainpeko autobide eta tuneletan, azpiegitura segurtasun-baldintza egokietan eta jaiegunetako langileekin funtzionamenduan egongo dela bermatuko da. Ordainleku-zerbitzua langileen % 15ekin emango da. Ehuneko horiek kasuren batean pertsona bat baino gutxiago badira, pertsona horrek zerbitzu horiek egin beharko ditu.
- c) Errepideen mantentze-zerbitzuak jaiegun bati dagozkion langile eta zerbitzuekin lan egingo du.
- d) EAEko gasolina-zerbitzuguneen % 20aren funtzionamendua bermatuko da. Lurralde bakoitzeko sektoreko patronalak erabakiko du zein izango diren, sektorean ordezkatuta dauden erakunde sindikalei entzun ondoren.

Zazpigarrena.- Energia, gasa, ura eta telekomunikazioak produzitu eta hornitzea.

- a) Energia elektrikoa produzitu eta hornitzeaz, gasa produzitu eta hornitzeaz eta ura araztu eta hornitzeaz arduratzen diren enpresek eta organismoek zerbitzua bermatuko dute, jaiegun bati dagokion langile-kopuruarekin.
- b) Telekomunikazio-enpresetan, mantentze-lanak egiteko, jaiegunetan langile-talde horretan lan egingo luketen langileek lan egingo dute.

Zortzigarrena.- Euskal Irrati Telebista / Radio Televisión Vasca (EITB)

Bermatu beharreko zerbitzuak eguneroko albistegiak dira soilik, haien ohiko ordutegian.

Bederatzigarrena.- Sektore publikoa

- a) Administrazio publikoak. Hiru lurralde historikoetako hiriburuetan dokumentuak erregistratzeko zerbitzuek ere zerbitzua eman beharko dute, Zuzenean zerbitzuaren bidez, egoitza hauetan: Araban: Ramiro Maeztu kalea 10 (behea), Vitoria-Gasteiz; Bizkaian On Diego Lopez Haroko Kale Nagusia 85, eta Gipuzkoan Andia kalea 13, Donostia. Gutxienez langile batek lan egingo du egoitzako eta txandako.
- b) Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkartea, EJI. Jaiegunetako pertsonala egongo da, hau da, operadore bat txandako.

Hamargarrena.- Justizia Administrazioa.

Honako zerbitzu hauek mantenduko dira, agindu honetako I. eranskinean zehazten diren langileekin:

- a) Guardia Zerbitzuaren berezko jardunak.
- b) Dokumentuak jaso eta erregistratzea.
- c) Urgentziazko gaiak organo judizialen artean banatzea.
- d) Legeak aldeztu aurretik ezarritako epea amaitzen zaien jardun guztiak, baldin eta ez-betetzeak berekin ekar badezake eskubideak galtzea edo kaltetzea.
- e) Ondorengo egunetarako utziz gero, eraginkortasuna gal dezaketen edo norbait espetxetik ateratzeko eguna atzeratzea ekar dezaketen kautelazko, behin-behineko eta betearazpeneko neurriak.
- f) Instrukzioko edo prozesua bultzatzeko jarduerak, baldin eta aurreko apartatuan aipatutako inguruabarretakoren bat gertatzen bada.
- g) 2018ko maiatzaren 30rako deitutako egintzak (epaiketak, agerraldiak eta abar), baldin eta etenez gero kalte larriak ekar baditzakete berekin, ondorenean egiteko zailtasunak direla-eta edo etenaldiak eragin litzakeen neurrigabeko kalteak direla-eta; besteak beste, honako hauek:
 - i. Zigor arloan, epaiketak edo apelazio-ikustaldiak, baldin eta tartean askatasunik gabeko pertsonak badaude edo urtebetetik gorako espetxealdia eskatzen bada.



- ii. Arlo zibilean, hartzekodunen batzarrak konkurtso-prozeduretan, eta oso behin-behineko neurriak.
 - iii. Lan-arloan, kaleratzeengatiko epaiketak.
 - iv. Arlo guztietan, oinarrizko eskubideen tutoretza-prozesuetan deitutako egintzak, baldin eta etenaldiak azken ebazpena geroratzen badu.
- h) Epea amaitzen zaien lurperatze-lizentziak eta erregistro-inskripzioak.
- i) Itsasontzi-matxurekin, itsas protestekin eta erreklisitoria-pertsonen egoera legeztatzearekin zerikusia duten jarduerak.
- j) Pertsonak barneratzea.
- k) Era berean, familia-elkarguneetan (2.7.3.2), eta soilik epai bidez ezarritako bisitetan, bi hezitzaile egongo dira.
- l) Gazte-justiziako hezkuntza-zentroak:
- i. Zumarragako Ibaiondo hezkuntza-zentroan, zerbitzu hauek mantenduko dira: 1) Zentroko arduraduna: langile 1. 2) Goizeko txanda (08:15etik 15:30era): 5 hezitzaile (1, hezkuntza-talde bakoitzeko). 3) Arratsaldeko txanda (14:00etatik 23:00etara): 10 hezitzaile (2, hezkuntza-talde bakoitzeko). 4) Gaueko txanda (00:00etatik 12:00etara): 5 hezitzaile (1 hezkuntza-talde bakoitzeko).
 - ii. Barneratze-neurriak betearazteko gazte-justiziako gainerako hezkuntza-zentroetan, jaiegun bati dagozkion langileak mantenduko dira.

Hamaikagarrena.- Arestian aipatutako zerbitzuak greba-eskubidea erabiltzen ez duten pertsonen emango dituzte, langile horiekin ezarritako gutxieneko zerbitzuak bete ezin direnean izan ezik.

Langileen ordezkariak entzun eta gero, enpresetako nahiz administrazio publikoetako zuzendaritzak izendatuko ditu langileek bete beharreko eginkizunak. Nolanahi ere, agindu honetan eta indarrean dauden legeetan ezarritako mugak errespetatu beharko ditu.

Justizia Administrazioari dagokionez, aurreko atalean adierazitako zerbitzuak greba-eskubidea erabiltzen ez duten langileek emango dituzte –langile horiekin ezarritako gutxieneko zerbitzuak bete ezin direnean izan ezik–, agindu honen eranskinean zehazten den bezala.

Justizia Administrazioaren esparru horretan, Justizia Administrazioako Letraduei, fiskalburuei edo dagokion erakundeko buruari dagokio ezinbesteko zerbitzuak bete behar dituztenak izendatzea, baita gutxieneko zerbitzuak bete behar dituen funtzionarioak zer kidegotakoa izan behar duen zehaztea ere, halakorik zehaztu ez den kasuetan, dagokion organoaren b

Hamabigarrena.- Agindu honen aurreko apartatueta bildutako gutxieneko zerbitzuak ezin izango dira aldatu horiek egiteko izendatuta dauden langileen aldaketen edo lanuzteen ondorioz. Halakorik gertatuz gero, legez kontrakotzat joko dira eta horiek egiten dituztenak erantzule izango dira, eta erantzukizuna eskatuko zaie indarrean dagoen ordenamendu juridikoaren arabera.




Hamahirugarrena.- Aurreko artikuluetan xedatutakoa gorabehera, greba egiten duten langileen eskubideak, grebari buruzko araudiak aitortzen dituenak, ez dira inola ere murriztuko, ezta grebarako deia egin dutenen eskakizunen izapidetzea eta ondorioak mugatuko ere.

Hamalagarrena- Jakinarazten denean jarriko da indarrean Agindu hau.

Hamabosgarrena – Ebazpen hau jakinarazi interesdunei, hau da: greba deitu duen sindikatuari, Euskal Autonomia Erkidegoan ordezkaritza handiena duten gainerako sindikatuari, Confebaski eta administrazio publikoei, urriaren 1eko 39/2015 Legeak (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak) 40. artikuluan xedatutako moduan, eta ohartarazi ebazpenak administrazio-bidea amaitzen duela eta horren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezaketela Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian —dagokion salan—, 2 hilabeteko epean —ebazpena jakinarazten denetik kontaktzen hasita—, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen Legeak (uztailaren 13ko 29/1998 Legeak) xedatutakoaren arabera.

Halaber, eta urriaren 1eko 39/2015 Legeak (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak) 123. eta 124. artikuluetan xedatuari jarraikiz, jakinarazi agindu honen aurka aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkez dezaketela, lan-agintaritzan, hilabeteko epean, agindua jakinarazi eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko maiatzaren 25a.



MARIA JESÚS CARMEN SAN JOSÉ LÓPEZ
LAN ETA JUSTIZIAKO SAILBURUA
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
DEPARTAMENTO DE TRABAJO
Y JUSTICIA